

Bero-alerik
ez dot zuekan,
ez dot idoro,
ta esanari
naita samiñez
eutsirik nago.

NEURE BORDATIK

Neure bordatik ez urruti,
baratza dot neuria.
An, keriza ondo zurian
gora ta bera dabil,
egundo gelditu eziña,
elai-sail baltz zuria.
 Keriza ondoa zuri,
 elai baltzak egalari.

Begiratua, ustekabe,
gora jaso dot kaden,
eta zoramenak artua
ez yat itzik urteten:
Zelan, baiña, lurrean gaitza?
Ixil noa otoizten.
 Keriza ondoa zuri,
 elai baltzak egalari.

Eder da, Jauna, Zuk emona:
eder keriza, eder txoria!
Zergaitik biotzean gaitza?
Zergaitik gerrak,
odola,
eriotza?

Eztot gaur erantzunik izan.
Arrats-beeran, alan be,
neure bordara biurtzean,
arri egiñik dakust
ner'gelako orma zurbilduan
Gurutz trauskilla lorán:
keriza eder dirudie
Kristo'ren beso-oiñak,
ta arein inguru, antsi iziz,
parrastaka elaiak.

BERESI ONDOAN

Beresi ondoan daukak
ik gaiñ gorrizko etxea,
zugatz ondoz, txori kantaz
ta aur iskanbillez aseá.

Nik ez dot, ai!, ez etxerik
ez zaratatsu aurtxorik,
baiña, i zoriz ikusi arren,
ez yoat, ez, nik bekaitzik.

Danona baita izadia
gauzakiz eder yakuna;
niretzat bere txoriak
txintatzen dau ots biguna.

Eta txoririk ezpalitz
larrean gozo kantari,
zertxobait ba-dot barruan
leun emona soiñuari.

Ez dot kabirik, ez aurrik
izadiko ibar ezean,
baiña kezkgage naiz bizi
neure muin-izotz utsean.